

Giza eskubideen aldarrikapena, iruditan

2011/09/19

Gizartea, Gros

Nork Maitane Aldanondo

Espainiako Amnistey Internationalek mende erdia bete du aurten eta urtotako lana gainbegiratzaren duten kartelen erakusketa jarri du Zurriola pasealekuan. Lanen artean Juan Aizpitarte donostiarra egindakoa dago.

Amnistey Internationalen (AI)

Espainiako ordezkariak orain mende erdi eratu zen. Urterena ospatzeko, Donostiako atalak, Zinemaldiaren eta Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearekin lankidetzan, *Mundua alda daiteke, baina ez da bakarrik aldatuko* erakusketa prestatu du. Ostiralean aurkeztu zuten, eta hilaren 30a arte ikusgai dago Zurriola pasealekuan. 50 urte hauen errebasoa diren 22 karteak erakundearen bilakaera erakusten dute. "Artista ezagunen aldarrikapenak jasotzen dituzte, une historiko bati lotuak edo Alren lanaren ardatz diren gaien bati buruzkoak: torturak, kontzientzia presoak, armen kontrola... Batzuk zirrargarriak dira", azaldu zuen Monserrat Arroyo erakusketaren zuzendarikideak. Erakundearen bilakaerarekin batera, Fernando Botero, Joan Miro... artista entzutetsuen protestak dira, edo une historiko bat begitaratzen dutenak daude, Stuart Franklinek Tiananmengo plazan tankeen aurrean zegoen gizonari ateratakoa argazkia kasu. Guztien artean bada Espainiako Alrentzat oso berezia den bat, *El abrazo* izenekoa, hain zuzen. "Honen 50.000 kartel saldu ziren eta diruarekin Madrilgo egoitza abian jarri zuten", argitu zuen Arroyok. Juan Genovesek amnistiaren alde 1976an egindako lanak, era berean, esanahi berezia hartu zuen 1977an; Atochan (Madril) abokatu batzuk kartelaren aurrean hil zituztenean.



Juan Aizpitarte eta Esteban Beltran 'Free Hakamada Iwao' kartelarekin

ITZURUN

itzurun (2011-11-10)



KIROL TAULA

FUTBOLA

Lehen Maila

Rayo Vallecano-Reala: 4-0.

Superliga

Reala-Rayo Vallecano: 0-1.

SASKIBALOA

ACB ENDESA

GBC-Valentzia: 80-86.

Emakumeen Bigarren

Maila

Alcobendas-EHU Ibaeta:

66-69.

ESKUBALOA

ABF Liga

Elxe-Bera Bera: 27-24.

ERRUGBIA

Ohorezko Maila

Durango-Pegamo BB:12-31